

TXALAPARTAREN "TTAKUN TTAN TTAKUN" TOLARETIK INFORMATIKARA

"Ttakun ttan ttakun" esanez edo kantatuz adierazten zuten gure txalapartari zaharrek txalapartaren joaldiaren oinarrizko eskema erritmikoa. Ttakun, ttakun, ttakun, ttan, ttakun, tukutun, ttan, ... eta horrelako onomatopeien bitartez funtzionatzen zuten zer eta nola jo behar zen erakusteko eta haiei ikasita sistema bera erabiltzen genuen guk ere bai gure hasieran.

1960. hamarkada bitartez txalaparta baseritar inguruan eta giroan erabiltzen zen, aurreko belaunaldietako txalapartariak sagardoa egiteko, sagarra jo eta bestelako auzolanetan egindako lanak bukatu ondoren egiten zen ospakizunetan agertzen zen protagonismo handiarekin.

Garai hartan Lasarteko Saustako Zuaznabartarrek eta Astigarragako Erbetegi-Etxeberriko Goikoetxeatarrek bazituzten famili bertan jarraitzaile gazteak (gaur egun ere bai noski). Baina kanpoko gazte batzuek ere jo zuten hauen atetata, beraien txalaparta ezagutuz, harritu eta liluratu ondoren, tresna edo musika hau ikasi nahian.

Geroztik egoera asko aldatu egin da eta txalapartak denbora motz batean bide luzea egin du. Gaur egun txalaparta ez da garai hartan bezala baseritar girora mugatzen eta kaletartu egin da. Erakusteko eta ikasteko sistemak ere asko aldatu dira, mota askotako ikastaroak egin dira eta urte batzuk badira aurreneko eskola iraunkorrak sortu zirela. Guzti honek besteak beste joera berriak, erritmo errepertorio berriak, ikasketa egitarau zabalagoak, funtzio musikal berriak eta txalaparta joaldiak idazteko kodifikazio eta idazkera berriak ekarri ditu eta txalapartaren izaera eta beharrei egokituz. Klaseetako joaldien idazkera ikasturtez ikasturte osatzen joan da eta milaka zimborro egin dira paperezko foliotan eta paretetako arbeletan.

Baina honetarako ere iritsi da gaur egun gure bizitzan nagusitzen ari den informatikaren aukera.

Saiakera asko egin ondoren Juan Mari Beltran txalapartariak eta Andres Doñatek prestatutako "ttakun 2" txalaparta idazteko programa informatikoa

2006ko Hemanin ospatutako 20. Txalaparta Festan aurkeztu zen.

Programa honek, aurretik eta urte-tako klasetan egindako jorrapen ondorioz eskolan sortutako sisteman oinarriturik, hizkera, formula eta kode berberak erabiltzen ditu.

20. txalaparta Festan aurkeztutako bertsio horrek bakarrik ohol bateko joaldiak idazteko balio zuen; neurri, erritmo, tempo eta hots-bolumen ezberdinetan.

2007ko maiatzaren 17an, Biteri Kultur Etxeko Areto Nagusian eta



R. Goikoetxea eta P. Zuaznabar. Hernani, 1994



21. Txalaparta Festaren egitarau barnean "Ttakun 2.1" bertsio berria aurkeztuko da. Honek aurrekoak eskaintzen zuenaz gain, ohol, palanka eta harri ezberdinak erabiltzeko aukera ematen du. Horretarako hiru material hauekin 50 grabazio egin dira, ondoren digitalizatu eta programa barnean antolatu den hots-base batean daude. Material bakoitzean grabazioak tonu ezberdinetan egin dira.

Modu honetan norberak osatuko du nahi duen txalaparta ohol bat nahiz gehiagorekin, palanka bat nahiz gehiagorekin, harri bat nahiz gehiagorekin edo material hauek nahasturik. Beraz, bakoitzak eta alde bakoitzean posible izango du txalaparta birtual ezberdinak aukeratzea. Garai, inguru eta egoera berrietarako tresna berriak. Hau da gogo onez eta txalapartaren alde aurkeztu den material honekin egin nahi den ekarpen berria. Tresna hau txalaparta irakasle nahiz ikasleei eskaintzan zaie. Klasetan edo lan-saioetan erabiltzeko da eta oso egokia izan daiteke:

-Joaldiak idazteko eta idatzitakoa entzuteko aukera ematen du. Modu horretan, ikusiz eta entzunez, ikasleak errazago eta era osatua goan ulertuko du joaldia.

-Joaldi batean hamaika aldaketa txiki eta handi egin daitezke aurrekoaren inguruan.

-Erabiltzeko joaldiak gorde daitezke artxiboan mailaz maila eta joaldiaren ezaugarrien edo erritmo motaren arabera antolaturik.

Orain falta den bakarra zera da, tresna hau erabiltzea, frogatu eta bere bilakaeran hurrengo urratsa prestatzen hastea.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udaberriko kontzertua

2007ko maiatzaren 12an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

INAZKI TALDEA

Talde honen arima Lapurdiko musikari batzuk dira, geroago nafar musikari pare bat hurbildu zaielarik. Momentu honetan, Inazki taldeak ondorengo musikariok osatzen dute:

Kristian Borda (soinua)

Jose Angel Elizalde (soinua)

Mintxo Garaikoetxea (xirula-tronpeta)

Battite Garat (tronpeta)

Sebastián Othaburu (bibolina)

Paxkal Saintestebe (perkusioa).

Urtean zehar mota ezberdinetako saioetan parte hartzen dute: inauterietako desfileak, kabalkadak, besta berri, herriko jaietan eta ezkontzetan dantzarako musika, kantu bazkarietan eta abar... Besteak beste Zubieta, Ituren, Arizkun, .. izaten

dira talde honen bisitak urtero jasotzen dituztenak

Taldearen osaerak ere markatzen ditu bere errepertorioa eta funtzionalitatea. Izan ere Iparraldeko eta Nafarroaren mendi aldeko herri festa tradizionalak erabiltzen diren musikak osatzen dute Inazki taldearen doinu bilduma. Festa horien izaera bereziak bestalde, behartu egiten ditu musikari hauek errejistro ezberdinetan aritzeko: kalean eta bazkalondokoetan, dantzarako musikak jartzen edo kantu tradizionalak laguntzeko euskarri instrumental ezin egokiago eskeiniz.

Saio honetako programa, urtean zehar jotzen dutenaren laburpen bat izanen da (martxak, fandango, arin-arin, kantu zaharrak, kontradantzak...)



DANI GARCIA DE LA CUESTA

Asturisko bandurria kontzertua

Daniel Garcia de la Cuestak Asturisko bandurriaz gain bibolin tradizionala, gaita, harpa, guitarra, flautak eta perkusioak ere jotzen ditu. Dantza tradizionala ere ondo ezagutzen du eta zenbait medioetan hitzaldiak ematen ditu gai hauei buruz. Argitaratu ditu zenbait idazlan herri musika, dantza eta etnografiari buruz, horien artean bandurriari buruzko ikasbide bat.

Folk talde ezberdinetan hartu du parte, aipagarriena "Lliberdon" izenekoa izanik eta beste musikari askorekin egin du lan. 98-99 kurtsoetik gaur eguneraino bandurria eta bibolina irakasle sortzailea da La Quintana Xixongo Musika Tradizionaleko Eskolan.

Kontzertu honetan kantauk, erromantzeak, koplak, dantzak, jotak, "asturianadas" entzungo ditugu, guztiak Asturisko tradizioetik jasota. Besteak beste:

Carretera abaxu va
Valsiao
Nun tabes allí
Estoi llocu
Ríu verde
El mozo arriero
Dame un besu
Rabilada
Rico franco
Les barandielles
Saltín
La hermana cautiva
Si vas al campu de Casu
Sones baillables
Coples



Udaberriko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.



**kontzertu honen
laguntzaileak:**





Herri musika Oiartzungo Ihauterietan

Pasa den otsailean ospatu dira Oiartzungo Ihauteriak giro ezin hobearekin. Gero eta nabar-menago da berauetan Herri Musikaren Eskolako kideen partaidetza. Argazkian larunbat 17an Karrika auzoan atera zen lagun taldea.

Bertoko Musikarien I. Jaialdia Erandion

Aurtengo martxoaren 31an ospatu zen Euskal Herriko zenbait Musika Eskolen parte-hartzearekin. Herri Musikaren Txokoaren kideak ere han aritu ziren.



BISITARI KOPURUA

Abendua: bisitari kopurua: 277

Antolatutako taldeak: 16

Urtarrila: bisitari kopurua: 94

Antolatutako taldeak: 5

Otsaila: bisitari kopurua: 172

Antolatutako taldeak: 10

Martxoa: bisitari kopurua: 596

Antolatutako taldeak: 25

Bisitari kopurua apirilera arte: 14.232

Dani García de la Cuestaren hitzaldi-kontzertua

Maiatzaren 12an Udaberriko Kontzertua ospatuko dugula eta bertan Dani Garcia de la Cuesta musikariak saio bat eskeiniko digula aprobetxatuz, beraren hitzaldi-kontzertua antolatu dugu. Hau, *Cantares de bandurria* diskoa argitaratu duela eta, ikusentzunezko beste euskarriz lagunduta (Power Point presentazioa) egiten du.

Disko hau *La bandurria y el rabel* liburuaren osagarria da eta bertan ematen dira bandurriari buruzko xehetasun ugari. Aurkezpen hone tan argitzen da zer den Asturiasko bandurria, lan beharrezkoa, izen bereko kordofono pul-tsatuarekin edota beste herrialdeetan erabiltzen den rabel izeneko soinu-tresnarekin nahasteko arriskua edo joera baitago. Diskoan Garcia de la Cuestak jotako doinu eta abesti tradizionalak (baten bat berak konposatuta) dakartza, bai eta 1982 eta 1960 inguruan beste musikariei egindako grabazio historikoak ere. Liburuak bere aldetik etimologia, sorrera, ikuspegi ezberdinetatik egindako azterketak, bibliografia, irudiak (400dik gora argazki) etabar luzea ekartzen du.

Aurkezpen hau datorren maiatzaren 12an, eguerdiko 12:30tan izango da Auzokalte elkar-tean, Herri Musikaren Txokoaren ondoan.

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

